

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, otsailaren 22koa. Onespena ematea atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren araudia aldatzeari**

Zerga sisteman arautzen den betebeharrak bat atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzkoa da.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EJJA) 2022ko urtarrilaren 27ko C-788/2019 epaiak adierazi duenez, atzerrian kokatutako ondasunak eta eskubideak aitortzeko betebeharrak horren erregulazioak eta horren ondoriozko zehapen sistemak Europar Batasuneko zuzenbidearen aurkako elementuak dituzte.

Egoera horren aurrean, aldaketak egiten dira betebeharrak horren araudian.

Aztertu da Zerga Araudiko Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horren ondorioz, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailko foru diputatuaren proposamenez, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak presazko arrazoiak direla eta Foru Aldundiari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

##### **1. artikulua. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga aldatzea**

Ezabatu egiten dira Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 50. artikulua 3. eta 4. apartatuak.

##### **2. artikulua. Sozietateen gaineko zerga aldatzea**

Ezabatu egiten da Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 123. artikulua 6. eta 7. apartatuen edukia, eta egungo 8. apartatuko edukia 6. apartatu gisa zenbatzen da. Honela geratzen da:

“6. Aurreko 1 - 5 bitarteko apartatuetan aipatutako ondare elementuen balioa zerga ondorio guztietarako baliozkoa izango da zerga oinarrian sartu bezain laster.”

##### **3. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatzea**

Ezabatu egiten dira Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren hemeretzigarren xedapen gehigarriko 2. eta 3. apartatuak.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusietara bidaliko da, indarrean dagoen arautegian ezarritakoarekin bat etorri baliozkotu edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 22a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun,*

*Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Ogasun zuzendaria*

*M<sup>a</sup> JOSÉ PEREA URTEAGA*